ttipi-ttapa fundazioa | **836. zk.** | 2023ko abuztuaren 10a | **XLIII. urtea** | **erran.eus** | TOKIKOM

# ttipi-ttapa




**HERRIETAKO BESTAK** / 7

# EGUZKIAREN HOBERENA ITZALA

Abuztuarekin batera, irailera bitarte agurtzeko tenorea ailegatu zaigu. Beti bezala, herriz herriko bestetako egitarauak aurkituko dituzue aldizkari honetan eta irailaren 7an hartuko duzue hurrengo Ttipi-Ttapa. Bitartean, uda ona pasa!



FREEPIK




**TELEFONO GIDA**

## Etxalarko Lorpen enpresa 25. urteurrena ospatzen ari da / 3

## XLVII. Artzain Zakur Txapelketa abuztuaren 15ean Amaiurren / 16




**ZOZKETA** / 36




## Erosotasunaz gu arduratuko gara ...



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m$^2$k) **0,85. Passive House**

- JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK
- AURREZTE ENERGETIKOA
- SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA
- ISOLAMENDU MAXIMOA

## ... eta zu zoriontsu izan.

***%45era bitarteko dirulaguntzak gestioekin lagunduko dizugu***

www.betikopvc.com • T. 948 45 32 59 • betikopvc@betikopvc.com



Lorpen enpresako produktuen managerra den Miren Olaetxea Indaburu etxalartarra, joskintza-tailerrean. AITOR AROTZENA

# 25 urte bete ditu Lorpen enpresak Etxalarren

1985ean zazpi etxalartarrek sortu zuten galtzerdiak egiteko lantegia bere sorterrian. Hamahiru urte beranduago Lorpen izena eman zioten eta gaur egun, mundu mailan ezagunak eta sarituak dira Etxalarren ekoiztutako kirol galtzerdi eta jantzi teknikoak

**AITOR AROTZENA** ETXALAR

Gaur egun kirol egiteko galtzerdi eta jantzi teknikoetan espezialduta dagoen Etxalarko Lorpen enpresa ezaguna 25. urteurrena ospatzen ari da aurten, baina bere jatorriak oraindik lehenagokoak dira. Etxalarko zazpi bizilagunek bultzatu zuten. Herrian ekiteko gogoa zuten. Duela 38 urte, 1985ean kooperatiba bat sortu zuten eta, hasieran, egunero erabiltzeko galtzerdiak egiten zituzten. Denbora gutxian konturatu ziren eboluzionatu egin behar zutela eta horrela hasi ziren mendiko galtzerdi teknikoak egiten.

Gaur egun Lorpeneko Product Manager edo produktuen zuzendaria eta erosketa burua den Miren Olaetxea Indaburuk aipatu digunez, «duela hamabost urte arte, josteko makinak herriko etxetxo txiki batean zeuden, eta etxe batzuetako etxabeetan galtzerdiak ere josten ziren. Bertze etxe batek biltegi lanak egiten zituen, eta bizilagunak hara joaten ziren jostera. Duela hamabortz urte, ordea, langileen etxeetatik gaur egun duten 2.000 metro koadroko nabera pasatu ziren eta hori mugarri garrantzitsua izan zela dio Olaetxeak: «Etxeetan lan egitetik nabe honetara pasatzea hagitz urrats garrantzitsua izan zen, proiektua sendotzeko, batez ere nazioartekotzeari begira».

### 2014tik Ternuarekin batera

2014. urtean bertze mugarri bat iritsi zen Lorpen markarako eta baita fabrikarako ere, «ordutik Ternua Group-en parte baikara».

Alde batetik, integrazio hori bultzada komertzial berri bat izan zen, Ternua-Lorpen tandema erreferente gisa kokatu baita merkatuan mendiko ekipamendu teknikoan eta berrikuntza iraunkorrean.

Eta, bertzalde, taldeko kide izateari esker, lantegiak, Ternua Group Faktoriaren barnean, ekoizpena dibertsifikatu du, eta Lorpen markako galtzerdiak egiteaz gain, josturarik gabeko barne-jantziak (seamless) ere egin ditu taldeko gainerako markentzat.

Urte hauetan zehar, taldeak lantaldean, sistemetan eta ekoizpen-baliabide berrietan inbertsioak egin ditu, bere ekoizpen-ahalmena handitzeko eta Etxalarko lantegia erreferentziazko zentro batean bihurtzeko, azalarekin kontaktuan dauden jantzien prestaketa aurreratuan eta ekoeraginkorrean espezializatua.

Izan ere, Miren Olaetxeak aipatu digunez, «800 bizilaguneko Pirinioen ondoko herri batean, outdoor-eko munduko bortz galtzerdi tekniko →

onenetako bat egiten duen fabrika bat izatea izugarria da. Herriarentzako diru-iturri garrantzitsua da, eta langileen %70, gainera, Etxalarren bertan bizi gara. Ni Etxalarkoa naiz, eta lortu dugunaz hagitz harro nago».

### Langileen lautik hiru emakumeak dira

Gaur egun 47 langile ari dira Etxalarko lantegian, «eta %75a emakumeak gara, lantegiko arlo guztietan ari garenak, joskintza-tailerretik hasi eta zuzendaritzara bitarte».

Ekoizpenari dagokionez, «punta itxiko galtzerdiak ehuntzeko italiar fabrikazioko zortzi makina berri paratu ditugu. Horri esker, urtean milioi bat galtzerdi pare baino gehiago egin ditzakegu, astean 14.000 galtzerdi pare».

Baina, horrez gain, aire zabaleko jarduerak egiteko josturarik gabeko 100.000 barne-jantzi termiko (kamixetak eta mallak) ere ekoizten ditu Lorpenek. «Gure jantziak 50 herrialdetan baino gehiagotan merkaturatzen dira –aipatu digu Miren Olaetxeak–, taldearen marken bidez (Lorpen, Ternua, Loreak Mendian eta Ternua Workwear), baita kanpoko marken bidez ere. Gure diseinuak bortz kontinentetan izan direla erran dezakegu. Adibidez, fabrikako urteko ekoizpenaren %20 inguru hirugarrenentzat da, bertzeak bertze, Forum Sports, Bever eta Ametrine bezeroentzat».

### Produkzio prozesua

Galtzerdiei dagokienez, fabrikazio-prozesuak hiru zati ditu, «eta %100 hemen egiten dugu. Diseinua baliozkotu ondotik, ehun-gelara pasatuko gara. Sartu berri ditugun zortzi makina berriekin, galtzerdiak egiteko 31 makina ditugu, hiru metroko altuera dutenak. Galtzerdi batzuei, gainera, punta eskuz josten diegu. Modu berean, garbitu eta lisatu egiten dira, bildu daitezen eta akatsik ez dutela egiaztatzen da. Azkenik, material birziklagarriekin biltzen ditugu, eta dendara kartoizko kaxatan bidaltzeko prestatzen ditugu. Prozesua antzekoa da josturarik gabeko barne-jantzietan».


Miren Olaetxea, Lorpenen ekoizten diren galtzerdietako batzuen aitzinean. A. AROTZENA

Galtzerdiz betetako kutxak bertze gela batean gordeten dituzte, apal metalikoetan ordenatuak, Arrasaten (Gipuzkoa) Ternua Group taldeak duen biltegi logistikora eramateko zain eta handik mundu zabalera: Australia, Nepal, Txile gaur egun merkatu garrantzitsua da, Ipar Amerika, Europa osoa… eta gero eta indar gehiago daukagu Asian eta Afrikan».

«Eta hori guztia gure ingurunea ahalik eta gehien errespetatuz egiten dugu», azpimarratu du Miren Olaetxeak. Lantegiak ISO 14001 ingurumen-ziurtagiria du, kontsumitutako energia elektrikoaren %100 jatorri berriztagarrikoa da, «ez dugu kimikarik erabiltzen azken produktuetan, ez eta ur gehiegi ere prozesuetan, erabilitako material guztiak Europan tindatu eta ehuntzen dira eta Oeko-Tex ziurtagiria dute (hau da, galtzerdiek substantzia kaltegarririk ez dutela bermatzen du)… eta gero eta langile gehiago etortzen gara lanera bizikletaz!».

**«LORPENEKO LANGILEEN % 75 ARLO GUZTIETAKO EMAKUMEAK GARA»**

Maila handiko mendizale eta kirolarien babesa izan dute Lorpeneko produktuek betidanik, baina azken aldian garrantzi handiko nazioarteko sariak ere eskuratu dituzte.

### Kirolaren Oscar sariak

Ternua Group Faktorian egindako bi jantzik sari bana jaso dute Ispo Awards 2022an. «Sari hauek kirolaren Oscar sarien modukoak dira» dio Miren Olaetxeak. Jantzietako bat Ternua markako barruko elastiko bat da, Kantauri itsasoan jasotako arrantza-sareetatik datorren poliamida birziklatuz egina, Redcycle proiektu bereziari esker; bertzea, Lorpen markako galtzerdi biodegradagarriak, neguan mendirako diseinatuak. Galtzerdi hauek ez dira inoiz zabor bihurtuko. «Gainera, harro gaude gure jantzietan konfiantza duten alpinista handien konfiantzaz, espedizioetan beren oinak jantzi eta babesteko, hala nola Alberto Iñurrategirena edo Gerlinde Kaltembrunner alpinista austriar handiarena, oxigeno gehigarririk gabeko hamalau zortzimilakoak igotzen lehena».

**«EZ DUGU KIMIKARIK ERABILTZEN AZKEN PROZESUETAN»**

Saria lortu zuen kamisetetako baten osaketa % 97 poliamida da. Lehenbizi sareak beroarekin urtzen dira eta horren emaitza fibra gordin bat da, berriz ere urtzen dena. Materiala makina batean sartu eta, azkenean, sortzen diren hariak tindatu eta loditzen dira, josi ahal izateko». Gainera, kamiseta hau Europa osoan lehen jantzia da mendatik eratorritakoa eta bakterien kontrako tratamentua erabiltzen duena, «olio esentziala da, eta ez dauka metal arrarorik. Hagitzez jasangarriagoa da, ez baitu kutsagarria den deus botatzen». Etorkizunari begira, Miren Olaetxearen erranetan, «Ternua Group Faktoria funtsezko aktiboa izanen da taldeak ekoizpen propioan eta hurbilean hazteko apustua sendotzeko».

# «Galtzerdi teknikoetan espezialdutako bortz marka onenen artean gaude»

**MIREN OLAETXEA INDABURU** LORPEN ENPRESAKO PRODUKTUEN ZUZENDARIA ETA EROSKETA BURUA

1999an Industrias Savidai SL izena zuen Lorpen enpresak, orduko Ttipi-Ttapa Telebistako erreportaje batean ageri denez. Jose Manuel Bizente, sustatzatzaileetako batek zioenez, «galtzerdien diseinua, marrazkia, anagrama… ordenagailuan egiten da eta diskete batean sartu eta josteko-makinara pasatzen da informazioa. Orduan ere josteko-makinak automatikoak ziren, «baina pertsona baten laguntza ere behar dute, haria xehetzen ahal delako edo zikina sartu eta gelditu». Nabe batean egiten zituzten galtzerdiak, baina punta josi gabe gelditzen zen. Handik furgonetetan Martinera eraman eta han bukatzen zuten prozesua, punta josi, ur beroarekin garbitu, idortu, baporearekin plantxatu, etiketatu, kaxetan sartu eta herrian sakabanatuak zeuden 6-7 biltegietan uzten zituzten, saldu aitzinetik. 24 ordu beranduago, aunitz modernizatu eta zentralizatu da prozesua eta tresneria, baina funtsean berdintsua da. 1985ean zazpi etxalartarrek hasitako bide hark segida du oraindik eta etorkizun oparoa.



AITOR AROTZENA

**1985ean sortua, duela 25 urtetik Lorpen izenarekin lanean… Ibilbide luzea egin duzue, baina oraindik aitzinera egiteko eta hobetzeko gogoz segitzen duzue?**
Sartu berri dugun teknologia berriak (zortzi ehungailuek) instalazio honetan % 30 gehiago produzitzeko aukera emanen digu. Bertzalde, Lorpen-en 25. urteurrena dela eta, ekonomia zirkularreko proiektu batean ari gara lanean, baztertutako poliesterrezko jantziak galtzerdi bihurtzeko. Horrela, zabortegian bukatzen duen hondakin bihurtu beharrean, lehenbizi lehengai bilakatuko ditugu eta gero kalitatezko jantzi tekniko bihurtuko ditugu. Markako ekintza bat izatea nahi dugu, aldi berean herriaren historia kontatzen duena. Izan ere, hemendik, gero bat egiten duten bi erreka pasatzen dira eta horrela, dena elkartzen dela eta aitzinera egiten duela adierazi nahi dugu.

**Naturaz inguraturik lan egiteak ere balio erantsia ematen dio produkzio kateari?**
Gure bizimoduarekin, gure lanarekin eta egiten ditugun produktuekin koherente izaten saiatzen gara. Oraindik gehiago, Lorpenek bere ur-araztegi propioa ere badauka. Onena tratamendurik ez erabiltzea da eta jantzien % 98an ez dugu erabiltzen. Baina noizbait erabili beharra suertatzen bada, ongi egiten dugu, ingurumena errespetatuz betiere.

«GALTZERDI ETA JANTZIEN %98AN EZ DUGU TRATAMENDURIK ERABILTZEN»

**Hain zuzen, ingurumenarekin errespetu horri garrantzi berezia ematen diozue lan prozesuan eta hori azpimarratzen duzue aunitz…**
Duela hiruzpalau hilabetetik hona, gure jardueran sortzen diren ehun-hondakinak (galtzerdi akastunak, hari kaltetuak, galtzerdi zatiak…) automozioaren industrian isolatzaile gisa erabiltzeko birziklatzera bidaltzea lortu dugu, bigarren bizitza bat emateko. Hagitz kontent gaude urrats honekin. Produktuak eta prozesuak beti hobetu behar ditugu, beti ere iraunkortasuna gogoan izanda!

**Nork erranen zien hasierako sortzaile haiei, 37 urte beranduago Lorpen horrelakoa izanen zenik…**
Hasieratik eta Nafarroako Gobernuaren programa bati esker Lorpenek bere lekua hartu zuen merkatuan. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbarak 2006ko esportazioaren saria eman zion Lorpen lantegiari, «epe laburrean izan duen zabalkunde indartsua» aitortzeko. Orduan merkataritzako saila ireki zuen Kanadako Toronton eta ekoizpen lantegi berria Mexikoko Puebla hirian. Mendiko galtzerdi teknikoetan espezialdutako marka bakanetakoa ginen eta orain munduko bortz onenetako bat gara, 800 bizilaguneko herri batetik abiatuta. Izugarria da lortu dena, baina aitzinera begira lanean segitzeko gogoz gaude!

ttipi-ttapa



# LIDERRAK
## gure eskualdean

*baita azterketa egiterakoan CIESek **Nafarroa Garaiko mendialdean** hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.*




### ADINAREN ARABERA









### SEXUAREN ARABERA

**%48,2** EMAKUMEAK

**%51,8** GIZONAK

DATU ITURRIA: CIES, 2023ko lehen neurketa

# ARANTZAKO BESTAK 2023

## Egitaraua



### Abuztuak 14, astelehena

**12:00etan** txupinazoa. **Ondotik** herriko txistularien kalejira eta azken urtean jaiotako haurrei ongietorria. **Segidan** herriko dantzarien emanaldia. **14:00etan** herri bazkaria Goiko Karrikan, Izer eta Alabierrek alaitua. **18:00etan** eskolako haurrek marraztutako kartelen erakusketa gorapean eta ginkana eta aurpegi margotzea haurrentzat plazan. **20:00etan** musika Belfast taldearekin. **21:30ean** zezensuzkoa. **00:00etatik aitzinera** Belfast taldearekin dantzaldia.

### Abuztuak 15, asteartea

**10:00etan** diana herriko txistulariekin. **11:30ean** Arantzako Dantzak frontoian. **17:30ean** pilota partidak: Bortzirietako gaztetxoen partida: Eukeni Etxenike eta Markel Korta, Loitzate Goñi eta Ander Pagolaren kontra. Emakumezkoak: Arrizabalaga eta Mendizabal, Aldai eta Capellanen kontra. Gizonezkoak afizionatuak: Yoldi eta Cuairan, Apezetxea eta Apezetxearen kontra. **20:00etan** bertso saioa plazan. Arantzako bertsolariak eta Ekhiñe Zapiain, Saioa Alkaiza, Angel Mari Peñagarikano eta Xabat Illarregi. **21:30ean** zezensuzkoa. **00:00etan** Obaneuke taldearekin dantzaldia.




I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA
IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
661 735 052 ARANTZA
ESTRUKTURAK · TEILATUAK · FATXADAK · ZAHAR BERRITZE LANAK

Jaurena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak
Eguzki-panelen instalazioa eta dirulaguntzen gestioa
Ongi pasa bestak!

DESINBERA
INSEKTU-HILTZEAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK · HEGAZTIEN KONTROLA
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

Alberto RETEGI
abokatua
✆ 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

PRIMI ostatua
Ongi pasa bestak!
Goiko karrika, 7 · ARANTZA · T. 948 634 052

arropa-denda
etxeko osagarriak
lentzeria
Arturo
Altzate, 30 BERA
T. 948 630 136

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
K-STRETCH
Etorri eta probatu debalde!
San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN
Ongi pasa bestak!
Centro Prim
regina tolosaecheparE

PABLOENEA
Ongi pasa bestak!!
Menua, karta, plater konbinatuak,
etxean egindako pizzak, ...
taldeak ere hartzen ditugu.
Goiko karrika, 5 • ARANTZA • 948 634 077

JESOLE -GOZOTEGIA
Altzate, 19 • BERA •
T. 948 630 786

EDARIAK

Ongi pasa bestak!

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
info@tabernaedariak.eus
www.tabernaedariak.eus





ilargi okindegia
APEZENEA

Ongi pasa bestak!





Enkarguak: 948 634 156 · ARANTZA


## Abuztuak 16, asteazkena

**10:00etan** diana herriko trikitilariekin. **10:00etatik 14:00etara** puzgarriak frontoian. **13:00etan** elkartasun poteoa. **14:00etan** elkartasun bazkaria eskolan. **17:00etan** haurren lasterketa eta merienda plazan. **18:30ean** herri kirolak frontoian. Harri altxatzen: Lur Errekondo eta Mikel Lopetegi Urpe. Eta Nafarroako III. Mailako Gizonezkoen Aizkora Txapelketako finala: Victor Suarez, Jon Erdozia, Patxi Igoa, Oier Mitxelena eta Iker Goldarazena. **20:00etan** Holako taldearekin dantzaldia. **00:00etatik 02:00etara** Holako taldearekin dantzaldia.

## Abuztuak 17, ortzeguna

**10:00etan** diana herriko trikitilariekin. **11:00etan** pilota eskolako haurrak eta Arantzako Pilota Txapelketako finalak. **13:00etan** kantu poteoa. **14:00etan** udaletako ordezkarien bazkaria. **17:00etan** entzierro ttikia plazan. **18:30ean** auzoen arteko desafioa frontoian. **20:00etan** buruhaundien eta erraldoien kalejira, trikitilariekin. **20:15ean** mutxikoak plazan. **21:00etan** auzoetako afariak. **00:30etik aitzinera** dantzaldia Trikidantzekin.

## Abuztuak 19, larunbata
## Arantza Rock

**Ilunabarrean** Matraka elektrotxaranga. **23:30etik aitzinera** kontzertuak: Deserrite, Burutik eta Kamuts taldeak. Sarrera bortz euro.





Arantzako udalak besta onak opa dizkizue aranztar eta bisitari guztiei

# «Bertsoa nahi dudana errateko eta izateko aukera amaten didan espazioa da»

## KATTIN MADARIAGA APAOLAZA
**Arantzako bertsolaria**

Egunotan beteko ditu Kattin Madariagak 15 urte, eta ibilbide ederra osatzen ari da bertsotan. Aurtengo ikasturtea bereziki aipatzekoa izan du, sariketa aunitzetan saritu baitute bere lana: Baztan-Bidasoko eta Iruñeko bertsopaper lehiaketetan, *Bertsolari* aldizkarian, Azkue Literatur Lehiaketan, Kotto Saria Bortzirietako Taldekako Bertsolari Txapelketan... Eta Nafarroako Eskolartekoan ere txapeldun izan da.


XDZ

Sei-zazpi urterekin hurbildu zen bertso mundura: «Eskolako zuzendaria patio garaian bertso klase moduko batzuk ematen hasi zen. Anaia agertzen zen, eta joateko erran zidan, atautxiri [Xalbador Madariaga bertsolaria] ilusioa eginen ziola». Probatu eta gustua hartu zion: «Oroitzen naiz pentsatzen nuela bertze batzuek futbolean edo dantzetan euren lekua harrapatu zuten bezala, nik bertsotan aurkitu nuela nirea. Hagitz ongi pasatzen nuen. Ikasketa baino gehiago josteta zen. Irri handi batekin sartzen ginen eta handiagoarekin atera».

Sorterrian hasitako bideari, kanpoan eman zion segida: «Hasieran Arantzan egiten genuen bertso eskola, lagunekin, baina mantso-mantso uzten joan ziren, eta anaia, haren lagun bat eta hirurok gelditu ginen». Urte batez horrela segitu zuen, Estitxuk bere adinekoekin Berara joateko gonbita egin zion arte: «12 bat urterekin astean bi saio egiten hasi nintzen, bat Beran eta bertzea Arantzan». Hala ibili da aurtengo ikasturtera arte: «Aurten Estitxuk Lesakara helduen taldera gonbidatu ninduen, eta astean hiru edo lau eskola egiten hasi naiz». Kontent da helduen taldean hasita «dezente hobetzeko aukera» izan duelako, «salto handi samarra» eman duelako. Eta gehiago ere bai. Aurten, Nafarroako eta Euskal Herriko eskolartekoetan kantatuta, «saio bat edo bertze ateratzen ari zaizkit».

Hitz politak baino ez ditu bertsolaritzaz: «Bertsoak naizen horren zati handi bat eman dit. Nahi dudana errateko eta izateko espazioa da, lagunik hoberenetarikoak eman dizkidana». Eta bide horretan, Arozenaz oroitu da «Estitxuk aunitz aldatu duelako emakumeen bertsolaritza» eta «dakidan guztia erakutsi didalako»: «Ttikitatik ondoan izan dut, bertsotan segitzeko bultzatu nau eta beti sinestarazi dit balio dudala. Aunitz dut berari eskertzeko».

Bertsoa, ordea, ez da bere afizio bakarra, pilota, literatura eta trikitixa ere maite ditu. Eta ikasketetan ere fin dabil: «Aurten Arantzako eskolatik Toki Ona institutura joan gara. Aldaketa handia da, baina Arantzatik prestatuak joan gara, eta ez da gogorra izan». DBH bukatuta, Batxilergoa egin, eta gerora, «deus erabakitzeko oraindik hagitz gaztea» dela badio ere, «Euskal Ikasketak eta Filosofia» ditu begiz joak.

Gainerakoan, udaz gozatzen ari da: «lagunekin herrian ibili, hondartzara eta igerilekura bisita, sanferminetara, bertso udaleketara...». Eta herriko bestak ere ez ditu galduko: «Egunez ekitaldietan, arratsez bestan eta goizez trikitixarekin dianan ibiliko naiz». Egunik kuttunena, berriz, abuztuaren 15a du, «Arantzako dantzengatik. Herritarrak bilduak, dantzan, gure herriarena bakarrik den tradizioari segituz... Hagitz polita da». Eta besten atarian, «bestak ongi pasatzeko aukera ederra» direla oroitarazi du, baina «denontzako bestak» aldarrikatu ditu: «Denok eskubide berdina dugu bestan lasai egoteko eta errespetua denok merezi dugu. Inor ez da inor baino gehiago, eta inor ez da inor baino guttiago».
















# ETXALARKO BESTAK 2023

## Egitaraua

### Abuztuak 14, astelehena

**17:00etan** VII. lasterketa herrikoia. Haur eta helduentzat lasteketa ez lehiakorra. 12 urtetik beherako haurren izen ematea. **17:30ean** haurren lasterketa eta helduen izen ematea. **18:00etan** helduen lasterketa. **Ondotik** berendua izanen da. **19:45ean** agerraldi ixila *Euskal Presoak Euskal Herrirat*. **20:00etan** altxaferoa. Txistulariak, trikitilariak, Elutxa txaranga, buruhandiak eta kankailuak. Xanpaina eta goxokiak banatuko dituzte. **21:30ean** herri afaria frontoian. Herri afarian eta ondotik txarangak animatuko du gaua. **00:30ean** dantzaldia Gabanerarekin.

### Abuztuak 15, asteartea

**10:30ean** diana gaiteroekin, buruhandiekin eta kankailuekin. **11:30ean** meza nagusia. **12:30ean** herriko dantzarien saioa txistulariekin eta musikariekin. **Ondotik** eskola zaharreko estalpean hamaiketakoa dantzarientzat eta musikarientzat. **18:30ean** herri kirolak. Proba konbinatuak. Aizkoran Nerea Sorondo eta Maika Ariztegi; aizkora altueran Patxi Larretxea eta harri jasotzaileak. **20:00etan** Fan & Go taldearen emanaldia. **00:00etan** Fan & Go taldearen emanaldia.

### Abuztuak 16, asteazkena

**10:30ean** dianak herriko trikitilarien eskutik, buruhandiekin eta kankailuekin. **11:00etatik13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara** haurrendako joko parkea, txu-txu trena, puzgarriak eta joko tradizionalak Nafar Produccionesen eskutik. **13:30ean** Asauttiki haurrentzat. **16:30ean** eskalada frontoi atzealdean haurrentzat eta helduentzat. **17:00etan** XXIX. Mus Txapelketa. **19:30ean** Chuchin Ibañez eta mariatxiak. **00:00etan** DJ Txingudi.





















bai euskarari zerbitzua euskaraz
HERRIKO OKINDEGIA

Ogi naturalak, ama oreaz eginak:
Espelta | Garia | Zekalea | Arto ogia
Egunero irekia: 06:00 > 13:00 - T. 627 033 975 - ETXALAR



## Abuztuak 17, ortzeguna

**10:30ean** diana herriko txistularien eskutik, buruhandiekin eta kankailuekin. **11:00etan** herriko umeen XXXVI. pilota txapelketako finalak. Aurre-benjaminak/ benjaminak, benjaminak/alebinak eta infantilak. **12:00etan** Aitor Danboriena Memoriala XII. pilota txapelketako finala. **13:00etan** pilotako sari banaketa. **18:30ean** herriko trikitilarien saioa. Ondotik trikitilarientzat berendua eskola zaharrean. **19:30ean** Saltoka euskal musika eta dantza tradizionala. **00:00etan** Bidebatez taldearen erromeria.

## Abuztuak 18, ortziralea

**10:30ean** diana Elutxa txarangaren eskutik, buruhandiekin eta kankailuekin. **12:30ean** bertsolariak: Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano. Gai jartzailea: Joseba Olagarai. **14:00etan** jubilatuen bazkaria Larraburuan. **14:00etan** asaua ermitako Zelaian. Plaza ingurutik Elutxa txarangarekin batera elkarrekin abiatuko dira bertara. **17:00etan** Pontx eta Potx pailazoak. **20:00etan** Burrunba elektrotxaranga. **21:00etan** Puntu Morea kultur etxeko arkupean. **23:00etan** Dantzaldia Obaneuke taldearekin.





★ ★ ★
ETXALAR HOTEL-VENTA

ONGI PASA BESTAK!
- 40 logela erabat osatuak (komuna eta TBrekin)
- Ostatua: Karta, eguneko menua eta plater konbinatuak | Jangela pribatua
- 300 lagunendako bankete-jangela
- 200 ibilgailuentzako parking pribatua
- AZKUA erabilera anitzeko gela: kontzertuak emateko, ezkontzetako dantzaleku, konferentziak emateko,... mota guztietako ekitaldiak

N-121-A • ETXALAR • T. 948 635 000 • F. 948 635 263
www.etxalar.com | info@etxalar.com

ETXALARKO EKITATIBA eta HARITZPE OKINDEGIAren partetik
BESTA ONAK PASA! GORA AMA BIRJINA!
HARITZPE
ETXALARKO OKINDEGIA
T. 618 778 328

ETXALARKO EKITATIBA
T. 948 635 026

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Zalain Ind., 42 Bera.
Ongi pasa bestak! 948 63 14 52 / 639 80 80 34 / 639 56 59 65

TIPI TAPA Bidaiak
Gozatu herriko bestak!
CIE: 2556
T. +34 632 512 791
@tipitapatravel

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK
Ongi pasa bestak!
Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun 943 63 45 36

IRIBARREN
Fabrikazioa, salmenta, instalazioa
Energia aurrezteko leihorik egokiena!
Passivhaus-Etxeentzako leihoak

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !!
Antsolokueta, 28
31760 ETXALAR
T./F. 948 635 071
info@ventanasiribarren.com

# «Erraldoiekin ateratzeko ez dugu entseatzen, ongi pasatzeko ateratzen gara»

**MARKEL ITURRIA RAZKIN**
**Etxalarko gaztea**



«23 urteko gazte arrunta, kirola, herria eta besta gustuko dituena». Halaxe deskribatu du Markel Iturriak bere burua. Besta gustuko du, eta tartean, noski, Etxalarko bestak ere gustatzen zaizkio. «Lan edo eginbehar dezente izaten dira, baina, gogoz eta ilusioz egiten ditugu», kontatu du.

Kirolaria izateaz gain, dantzaria ere bada, eta bestetan dantzan aritzea egokituko zaio. Urtean zehar astean behin entseatzen dutela dio baina, bestak hurbildu ahala «azken egunetan gehiago elkartuko gara». Gainera, dantzan aritzeaz gain, erraldoiak dantzatzen ariko da Iturria, baina horretarako entsegurik ez dutela egiten dio «momentuan bertan bakoitzari ateratzen zaiona egiten dugu, ongi pasatzeko ateratzen gara», dio irriz.

Egunero ateratzen dira bestetan, eta goizetan egiten dute zita ostatuan. «Normalean denak agertzen gara, baina, baten bat aitzineko egunean luzatu eta lokartzen bada bere etxera joaten gara gaiztakeriaren bat egitera». Erraldoiak eramatea taldeko kide denen artean egiten dutela azaldu du, eta «dantzatzea gustuko baduzu erraz» egiten dela. Etxalarko erraldoiek berezitasun bat dute, besoak libre dituztenez «kontuz ibili behar baita», baina hala ere, «erraz» kontrolatzen dituztela dio.

Familiatik datorkio erraldoiekiko zaletasuna, osabak sartu baitzien harra anaiari eta biei, eta 3-4 urte zituenerako aritzen baitzen oparitutako erraldoi ttiki bat dantzatzen, «eta oraindik horretan segitzen dugu».

Gogotsu dago bestetarako, eta batez ere bi momentu ditu gustuko, «bezperako erraldoien itzulia eta asaua, ezingo nuke bietako bat aukeratu». Eta bestek zer faltan duten ere argi du: «sokamuturra eginen nuke, baina, ez dut argi nola». Etxalarrera joaten denak ziur aurkituko duela Iturria, bestan ez bada erraldoiekin dantzan.

ETXALARKO HERRIKO OSTATUA
Bestetako menu berezia, Karta, razioak, bokatak, pintxoak, hanburgesak, pizzak...
Eramateko ere prestatzen dugu!
ongi pasa bestak!

Anduetzeta, 15 | ETXALAR | T. 948 397 959

Ongi pasa bestak!
Camperos LARRAZ
%100 BERTAKOA
%100 LIBREA
%100 NATURALA
%100 BENETAKOA
T. 609 43 35 87 larraz@huevoslarraz.org

# DONAMARIAKO BESTAK 2023

## Egitaraua



### Abuztuak 14, astelehena

**18:30ean** herri kirolak: Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa, Nafarroako Gizonezkoen eta Emakumezkoen Lokotx Biltze Txapelketa. **20:00etan** txupinazoa: Haritz Sagaseta herriko abeslari lirikoak botako du. **Gero**, herriko trikitilariekin kalejira. **21:00etan** zopak Herriko Ostatuan. **00:30ean** DJ Bull.

### Abuztuak 15, asteartea

**09:00etan** dianak Baztango gaitarien eskutik auzoz auzo. **11:00etan** meza. **12:00etan** kalejira elizatik frontoian Baztango gaitariekin eta erraldoiekin. **12:15ean** omenaldia 80 urteko herritarrei. **12:30ean** Doneztebeko dantza eskolako dantzarien emanaldia. **18:00etan** binakako pilota partidak: Elizale-Irurita/Arteaga II-Irusta. **20:00etan** dantzaldia Hauspolariek taldearekin.

### Abuztuak 16, asteazkena

**11:30ean** herri krosa (izen ematea 10:30ean). **12:30ean** *kaballito* konpetizioa. **13:00etan** paella prestatzea eta jatea. **18:30ean** La Farruka batukada. **21:30ean** pintxo potea plazan. **23:00etan** DJ Uzkulluz.

### Abuztuak 17, ortzeguna

**11:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:00etara** puzgarriak igerilekuan eta frontoian adin guztietako haurrentzako. **17:30ean** mus txapelketa. **18:00etan** txokolate jatea (Ruiz okindegiak oparitutako croissantak). **19:00etan** patata tortilla eta postre lehiaketa. 16 urtetik gorakoentzat afaria 10 eurotan (tortilla, zerrikia, ogia eta kafea). Txartelak plazan salgai. **19:00etan** dantzaldia Hauspolariek taldearekin. **21:30ean** patata tortilla, postre eta balkoi lehiaketen sari banaketa.

### Abuztuak 18, ortziralea

**14:00etan** herri bazkaria Miren Amuriza eta Alaia Martin bertsolariekin eta trikitilariekin. **20:00etan** dantzaldia Laiotz taldearekin. **22:00etan** afaria plazan. **23:00etan** dantzaldia Laiotz taldearekin. **01:00etan** Gaixoa ni eta besten bukaera.




ANELAN
LAN BERTIKALAK
948 031 174
info@anelan.pro
Egiten ditugun lanak:
Fatxaden konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, teilatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA
DONOSTIA • T. 943 467 244 | 943 467 444
carnessein@bordako.com

sasoi eraikuntzak
ONGI PASA BESTAK!
SUNBILLA (NAFARROA)
T.: 948 451 596
info@sasoi.eus

ELIZAGA MUGIKA SL
conselmu CONSTRUCCIONES
ongi pasa bestak!
Etxebizitzen eraikuntzak
Teilatu berriztatzeak
Mota guztietako erreformak
T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es

Ayuntamiento de Donamaria
Donamariako Udala
Abuztuaren 14tik 18ra
Besta zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei

# ZUBIETAKO FESTAK 2023

## Egitaraua



### Abuztuak 14, astelehena

**20:00etan** herriko trikitilariak. **21:30ean** zopa handiak Errandonean. **00:00etan** joaldunak eta arbola altxatzea. Ondotik, Fan&Go musika taldearekin dantzaldia.

### Abuztuak 15, asteartea

**09:00etan** diana Elutxa txarangarekin. **11:00etan** Meza Nagusia. Ondotik txistulariak, joaldunak, erraldoia eta buruhandiak. **12:00etan** omenaldia plazan 2023an 85 urte bete edo beteko dutenei. **13:00etan** aizkora saioa: Eneko Saralegi eta Jokin Urretabizkaia 'Basozabal'. **19:00etan** Zacatecas mariatxiak. **Arratsaldez eta gauez** Modesto soinularia.

### Abuztuak 16, asteazkena

**Goiz eta arratsaldez** haurrentzat puzgarriak. **11:00etan** margoketa tailerra Iciar Mikelperizenarekin eta txapa tailerra haurrentzat. **12:00etan** herriko pilotarien arteko pilota partidak. **16:00etan** mus txapelketa herriko ostatuan. **19:00etan** bertso saioa: Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi eta Oihana Iguaran. Gai-jartzaile: Bittori Elizalde. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia Hauspolariek taldearekin.

### Abuztuak 17, osteguna

**Goiz eta arratsaldez** puzgarriak. **10:30ean** haur jokoak. **14:00etan** haur eta gazteen bazkaria. **16:00etan** plater tiroketa. **18:00etan** patata tortilla lehiaketa eta ondotik tortilla jatea. **20:00etan** Txingudi DJ. **23:00etan** suzko zezena. **00:00etan** Txingudi DJ.

### Abuztuak 18, ostirala

**Goiz eta arratsaldez** haurrentzat puzgarriak. **11:00etan** mosaiko tailerra eta futbito haurrentzat. **13:00etan** pala txapelketaren finala. **14:00etan** herri bazkaria Hondarribiko trikitilariek alaitua. Ondotik, bingo musikatua. **20:00etan** Bizphiru musika taldearekin dantzaldia. **22:00etan** suzko zezena. **22:00etan** zingar eta tortilla jatea estalpean. **00:00etan** arbola botatzea. Ondotik, Bizphiru taldearekin dantzaldia.


ORBELA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

E. ERRANDONEA, S.L.
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Ongi pasa bestak!
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

ZUBIETAKO HERRIKO OSTATUA
Taberna, jantokia eta logelak
Kale Nagusia - ZUBIETA
T. 621254662
herrikostatua@gmail.com
ONGI PASA FESTAK!!


Zubietako Udalak
besta zoriontsuak opa dizkizue
zubietar eta bisitari guztiei

MADERAS SANTESTEBAN
ONGI PASA BESTAK!
Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak · Montajea obran
Teilaturako egiturak
Izei, haritza eta douglasezkoak edo laminatua
Osagarriak · Autoklabe tratamendua
www.maderasantesteban.com
Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com



# OronoZ-Mugairiko Bestak 2023

## Egitaraua

**Abuztuak 12, larunbata**
**12:00etan** txupinazoa. **Ondotik** kalejira herrian barna. **14:00etan** haurren bazkaria frontoian. **15:00etatik 18:00etara** haurrendako puzgarriak, jokoak eta aurpegi pintaketa. **Ondotik** merienda. **16:30ean** musa Gaztelune elkartean. **19:00etan** erraldoien itzulia herrian barna pilotalekutik abiatuta. **21:00etan** baztan zopak. **00:00etan** dantzaldia Laiotz taldearekin.



**Abuztuak 13, igandea**
**11:00etan** partxis lehiaketa. **14:30ean** gazte bazkari mozorratua. **17:00etan** herriari itzulia Elektrotxufla txarangarekin eta herriko Debalde.com txarangarekin. **20:00etan** mozorro lehiaketa plazan. **22:00etan** Koiputre gaua, kontzertuak: Marianitoz Blai, Maruxak, Hofe eta DJ Xuritabeltz.



**Abuztuak 14, astelehena**
**12:30ean** herriko gazteen pilota partidak. **13:00etan** kantaldia Debalde.com txarangarekin Mugairen. **14:00etan** zikiro jatea. **16:30ean** mahai-ingurua Aitor akordeoilariarekin. **19:00etan** aizkora erakustaldia Joxean Etxeberria eta Jon Rekondorekin eta harri jasotzea Jon Goenatxorekin. **21:00etan** postre lehiaketa. **23:30ean** DJ Txingudi.

**Abuztuak 15, asteartea**
**10:00etan** meza nagusia. **Ondotik** erraldoien itzulia. **11:00etan** herriko dantzarien erakustaldia frontoian. **12:00etan** luntxa frontoian. **17:00etan** pala finalak. **19:30ean** Los Gavilanes mariatxiak. **22:00etan** dantzaldia Bizphiru Pelau taldearekin. **Ondotik** karaoke herrikoia.


OTEIZA
ARKITEKTOAK
665 71 56 96 · 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com
Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)
Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia
oteizaarquitectos

Miren Gortari Sein
ILEAPAINDEGIA
ONGI PASA BESTAK!!
Martin Urrutia · ORONOZ-MUGAIRI · T. 948 59 23 10

UD
USTARROZ DISTRIBUCIONES
Ongi pasa Bestak!!
Sagualde, 19
• 948 59 20 12 • 609 38 58 04 •
Oronoz- Mugairi

SAGARDIKO edariak
ongi pasa bestak!
Balangorri, 9 · 948 59 20 27 · 608 46 64 60

TALLERES olloki S.L. TAILERRAK
T. 948 592 339 ongi pasa bestak!
Poli. indus. Zozaia – Errota, Pab.1 – Zozaia-Oronoz

ERREKA-ALDE
zurgindegia
Zurgin lanak orokorrean
Teilatuak • Sukaldeak • Armairu enpotratuak
Tfnoa: 948 592 070 · ORONOZ-MUGAIRI

OSKORRI
denda
Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!
Martin Urrutia
ORONOZ-MUGAIRI

BAR PIXTU OSTATUA
ORONOZ-MUGAIRI · T. 948592472
Bertizko Jaurerriaren parean
Asteburuan eta Amabirjina egunean eguerdian MENU BEREZIA
Gauean ogitartekoak, plater konbinatuak...
Ongi pasa bestak!

MUGAIRE ZONE AUTO
Gasolindegia
Mekanika azkarra
Gurpilak
Olio aldaketak
T. 948 599 090 • 948 599 236
N-121-B errepidea • ORONOZ-MUGAIRI
centreauto@josenea.es

# AMAIURKO BESTAK 2023


Arropa marka
HARA BI
zu bat eta bestea ni
ongi pasa bestak!
Baztan - Euskal Herria
komunikazioa@harabi.eus
www.harabi.eus

















## Egitaraua



### Abuztuak 14, astelehena

**20:00etan** suziriak eta ezkila-jotzea, Kuxkuxtu txaranga herrian barna. **21:00etan** baztan zopak txarangarekin. **01:00etan** gaupasa Trikidantz taldearekin.

### Abuztuak 15, asteartea

**10:00etan** Baztan Bidasoko XIX. ardi erakusketa eta lehiaketa, ardi gasna lehiaketa, artisauen erakusketa, zaldien eta behien erakusketa. **11:00etan** meza nagusia. **Ondotik** Gaztelu Taldearen emanaldia elizan. **13:00etan** mutil dantzak eta hamaiketakoa. **17:00etan** artzain zakurren desfilea trikitilariekin. **17:30ean** XLVII. Artzain Zakur Txapelketa, Patxi Etxeberriaren XVIII. memoriala. **20:00etan** herri kirol erakustaldia plazan. **Ondotik** kantaldia Xabaltx eta konpainiarekin.

### Abuztuak 16, asteazkena

**11:00etan** haurren esku pilota finalak. **12:00etan** haurren jokoak plazan. **14:00etan** haur bazkaria elkartean. **16:00etan** puzgarriak eta kart-ak plazan. **19:30ean** txokolatada. **20:00etan** muxikoak, gaita, larrain dantza eta mutil dantzak. **20:00etan** paella lehiaketa. **23:00etan** dantzaldia Bizphiru Pelau taldearekin.

### Abuztuak 18, ortzirale

**11:00etan** mus zimizte. **12:00etan** erraldoiak herrian barna. **14:00etan** gazte bazkaria. **17:00etan** herritarren jokoak. **19:00etan** Elektrokela elektrotxaranga herrian barna. **23:00etan** dantzaldia Iratzar taldearekin.

### Abuztuak 19, larunbata

**12:00etan** mus txapelketako finala. **12:30ean** XX. Boneta Jaurtiketa. **14:00etan** zikiro jatea Beñat eta Fernandok alaiturik. **21:00etan** gaita, larrain dantza eta mutil dantzak. **23:00etan** gaupasa Bide Batez taldearekin. **Ondotik** DJ Txingudi.






# «Euskal herrigintzan, hizkuntzagintzan eta kulturan gure ekarpen xumea egin nahi dugu»




## ITSASNE ARGÜELLES eta UNAI VILLACORTA
### Hara Bi arropa marka

Hara Bi arropa markaren sortzaileak dira Itsasne Argüelles amaiurtarra eta Unai Villacorta. Azaldu dutenez, «euskal esaera zaharren garrantzia azpimarratu eta bergizarteratu nahi dugu. Euskal kulturan, herrigintzan, hizkuntzagintzan eta baloreen transmisioan gure ekarpen xumea egiteko sortu dugu proiektua».'Askatasuna, elkartasuna, berdintasuna, maitasuna' hitzak serigrafiatuak zituen poltsekin aurkeztu zuten marka, «guretako berebiziko garrantzia duten baloreak».

**Gogotik plazara**

«'Inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza den' dio Ruper Ordorikaren kantu batek, eta hala da. Egunero babestu eta defendatu behar dugu geurea dena». Abiapuntu hortatik sortu zuten proiektua; «herrigintzan esparru guztiak jorratu behar dira, eta euskal atsotitzek horretarako aukera paregabea eskaintzen dute».

Ideia buruan bueltaka zuen aspalditik Villacortak; «Euskal Ikasketak egin nituen Baionan eta bertan ezagutu nuen Xarles Bidegain euskaltzain, ikerle eta irakaslea. Euskal atsotitzei buruzko pasioa transmititu zigun ikasleei». Hor hasi zen dena, eta 2022ko udan abiatu zuten bi gazteek proiektua.

**Atsotitzak irudikatuz**

Markaren produktu guziak atsotitzei lotuak daude, eta osagarri batzuk atera dituzten arren, «bereziki arropan zentratzen gara. Orain arte kamisetak eta jertseak egin ditugu». Bikotearen erranetan, «balorerik ez duten multinazionalen aitzinean, euskal alternatiba bat proposatu nahi dugu, bertako enpresekin elkarlanean eta amalurrarekiko begirunez. Kotoi organikoa eta poliester birziklatua erabiltzen ditugu arropak egiteko, eta Lapurdi, Gipuzkoa eta Nafarroan serigrafiatzen dira».

Diseinu propioak sortzen dituzte; «normalki ordenagailuz, irudiak konbinatuz eta irudimena astinduz. Batzuetan, atsotitzak berrikustean, bat aukeratu eta nola irudikatu pentsatzen dugu. Bertzeetan alderantziz, diseinu bat burura etortzen zaigu eta hobekien definitzen duen esaera zaharra bilatzen dugu. Hala ere, Euskal Herriko txoko guzietako ezaugarriak islatzen saiatzen gara, zubiak eraiki nahian».

**Emaitzarekin kontent**

Merkatuz merkatu ibili dira arropak saltzen, «eta berriki dendetan saltzeko aukera izan dugu. Webgune bat sortzeko pausoa ere eman dugu, *harabi.eus*, laguntzaile bikain bati esker».

Jendearen aldetik erantzun bikaina izan dute; «arras eskertuak gaude hasmentatik gure proiektuan sinistu duten guziekin. Sekulako laguntza izan dugu herriko eta inguruko jendearen aldetik, eta horrek gure egitasmoa indartu du».





ANZABAL inmobiliaria
Ongi pasa bestak!
• Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
• Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
• Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
• Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab salmenta eta alokairua
• Gestoria
Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



JOSEPHINE'S 20 ★ 13 ENGLISH
Pedro Axular, 2 Elizondo
Ongi pasa bestak!
BERTAKO IRAKASLEA
Matrikula irekita abuztuaren 31ra arte
Lehen hezkuntza
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)
Christina Irigoyen 637 176 572 josephinesenglish@gmail.com



ONGI PASA BESTAK!
REKALDE HARGINAK
Bainugelak · Sukaldeak · Pladur lanak
Fatxadak · Teilatuak
rekalde.harginak@telefonica.net
669 057 769
AMAIUR

Faustino ETXABE tailerrak
Autoen konponketa
BESTA ON BATZUK PASA !!
☎ 948 599 038 - ZUGARRAMURDI

benta Antton
ONGI PASA BESTAK!
